

## **Ikastetxearen deskribapen fisikoa eta aipamen historikoa.**

Landaberri Bigarren Hezkuntzako Institutua, institutu berria dela esan dezakegu, bere sorrera LOGSEri lotua dago (1996). Bere garaian OHOk ikastetxe bezala sortu zen, Ikastola pribatuen eremuan. Publikotasunaren aukera eskueran jarri zenean, bere betiko bokazio publikoaren erronkari heldu zion. Ondoren aurretik aipatutako lege organikoa abian jarri zenean, institutu independente izendapena eman zion, eta honekin batera, inguruetako bi ikastetxeri (Usurbilgo Agerialde eta Lasarte-Oriako Pablo Garaikoetxea) Landaberriekin lotzeko agindua eman zitzaien. Honen guztiaren ondorioz sortu zen Landaberri BHI ikastetxea.

Lasarte-Oriako eskola eskaintza guztiz publikoa da, bertako hezkuntza eskaintza honako hau da: Udal haurtzaindegia, LMHko bi ikastetxe, DBHko ikastetxe independente bat eta DBH/DOBHko beste ikastetxe bat.

Lasarte-Oriako herriaren erdigunean gaude kokaturik, beraz, ikastetxearen kokalekua urbanoa da. Eusko Trenbideak geltokiaren aldamenean kokatuta dago ikastetxea. Hemendik hurbil herriaren motorra den entresarekin egiten dugu topo, Michelinekin, alegia.

Ikastetxearen deskribapen fisikoa: hiru solairuko ikastetxea da:

- Behe solairuan idazkaritza, zuzendaritza, orientatzailearen bulegoa, liburutegia, gimnasioa, irakasleen mintegiak eta gela, musika gela, pedagogia terapeutikoko gela, eta informatika 1 gela aurkitzen dira. Gela hauetaz gain, biltegia, galdara gela, komunak eta igogailua ditugu.
- Lehenengo solairuan 3. mailako bi gela, 4. mailako hiru gela eta 2. mailako bi gela, hauetaz gain plastika adierazpeneko gela, bertan argazki laborategia kokatzen delarik eta natur zientzietako laborategia ditugu. Solairuaren alde banatan nesken eta mutilen komunak.
- Bigarren solairuan berriz, 1. mailako lau gela eta 2. mailako bi gela. Horietaz gain teknologiako bi gela eta informatika gela. Solairuaren alde banatan nesken eta mutilen komunak.

Landaberri BHiko zuzendaritza